



Teknologia berriak eta programazioa sustatzeko ekimena, uztailaren 28an

2017ko uztailaren 21a, 533 zenbakia XIII. urtea Andoainen eta Urnietan doan banatzen da

JARDUERA DIGITALAK URNIETAN

## Andoain eta Urnieta zeharkatuko ditu Klasikoak, uztailaren 29an

Arratsaldeko 14:00ak aldera bi herrietako txirrinduzaleek lasterketa bertatik bertara ikusteko aukera izango dute.

Antolatzaileek aurtengo edizioan N1 eta A15 errepideak saihestu eta World Tour goren mailako proba herriguneetatik igarotzea erabaki dute. Zaletuen poza ekarri du albisteak. Bi herrietako auto gidariak, bestalde, trafikoko segurtasunak agindutakoak bete beharko dute. Lasterketa igarotzen den bitartean mozketak izango baitira.



Tourra amaitu eta Markel Irizar edota Alberto Contador irteeran egongo dira. Baita agur esango duen Haimar Zubeldia ere.

ORDUTEGI AURREIKUSPENA	Ibilbidea	Errepidea	Km	38 Km/H	40 Km/H	42 Km/H
<b>DONOSTIAKO KLASIKOA</b> <b>ESKUALDEAN BARRENA</b>	• Irteera	Igara, Donostia	0,0	11:43	11:43	11:43
	• Andoain	Hiri Barrua	94,8	14:13	14:05	13:58
	• Urnieta	Gi-3722	100,7	14:20	14:12	14:05
	• Boulevardra	Helmuga	231,0	17:48	17:30	17:13

## Errepidean lehiatzeko gogoz dago



Errepide eta emaitza onen gose da **Mikel Iturria** urnietar txirrindularia (25 urte). Denboraldiko lehen helburuak haizeak eraman zituen Madrilgo Itzulian erori eta erradio-burua hautsita. Gaztela-Leon Itzulia korritu ezinik geratu zen, eta Route du Sud-en ere hainbestean aritu zen. Ordizia, datorren asteartean, eta abuztuaren 1etik 5era burutuko den Burgosko Itzulia begiz jota ditu.

[KIROL ALBISTEAK, 7. ORR.]

## Jarduerak udan Leitzaranen

Bisitarien etxeak antolatuta, uztailaren amaieran.

[AGENDA, 8. ORR.]

## Indusketa eta berreskuratze lanak

Leitzaran bailaran, Nafarroako Areson eta beste hainbat tokitan berreskuratze lanetan dabilta Burdina taldekoak.

Uda iristearekin batera Burdina taldearen lana biderkatu egiten da. Andoainen, Asteasun, Elduainen eta Leitzaran bailaran hainbat lan eremu dauzka jarrita abian oraintxe, ondare historikoa berreskuratzeke asmotan.

Alfredo Moraza arkeologoa-ren zuzendaritzapean, esaterako, zeramika zatiak topatu dituzte Nafarroako Areso herriko Ulizarko kobazuloan. Bertan zeramika zatiak topatu dituzte, Brontze eta Burdin aroen artean koka daitezkeenak, orain 2.500 urte egindakoak gutxi gora-behera.

Andoaingo hilerri inguruan, bestalde, aurreko astetan Pagamendi aldean garbiketa lanetan aritu ziren. Abuztuaren zehar, berriz, bigarren faseari ekingo diote.

[ESKUALDEA, 2. ORRIALDEA]



Burdina taldeko kideak Nafarroako Areso herrian dagoen Ulizarko kobazuloan.



EGUNEROKOAREN JARRAIPIEN ZEHATZA WEBGUNEAN

**AIURRI**.eus



## ONDARE ARKEOLOGIKOA

# Burdina taldea, udan ekimen betean

Urteko sasoi honetan pilatzen zaio lan gehiena Burdina taldeari. Andoainen, Asteasun, Areson, Elduainen eta Leitzarango bailaran hainbat lan eremu dauzka jarrita abian oraintxe, ondare historikoa

berreskuratu eta argitan jartzeko asmotan. Alfredo Moraza arkeologoaren zuzendaritzapean, esaterako, zeramika zatiak topatu dituzte Ulizarko kobazuloan.

## ULIZARKO KOBAZULOA

Badira urte batzuk Aresoko Ulizar kobazuloa industeari ekin ziotela Burdina taldeko boluntarioek. Berriki ekinaldi berri batean jardun dute, Alfredo Moraza arkeologoaren zuzendaritzapean. Zeramika zatiak topatu dituzte bertan, Brontze eta Burdin aroen artean koka daitezkeenak, orain 2.500 urte egindakoak gutxi gora-behera.

Leize-zuloa Ulizar mendiaren magalean kokatzen da, eta atal historiko ugari gordetzen ditu berarekin. Aresoko herrian eta inguruetan historian zehar transmititu izan diren testigantzen arabera, kobazulo horretan akelarreak ospatzen ziren, eta XVII. mendearen hasieran inkisizioak prozesua ireki zuen, herriko hainbat emakumeri sorginkeria praktikatzea leporatu eta horiek atxilotu ostean; absolbituak izan ziren azkenean. Hipotesien artean, ezin da baztertu ondorengo urteetan Ulizarko mendi gain-gainean eraiki zen Santa Krutz ermitak helburu jakin bat izatea: eliza ahalguztidunaren irudia herritarren begi bistan jartzea, alegia.

Leku estrategikoan kokatuta egoteagatik, leize-zuloa armen ezkutaleku gisa erabili zen XVIII. eta XIX. mendeetan gertatu ziren gerretan (independentziako gerra, karlistadak...). Karlisten azken gudaren ostean, agintariek leize-zuloa leherrarazi eta ixtea erabaki zuten.

Burdina taldeak 2014an egin zituen lehenbiziko zundaketak paraje horretan. Batetik, Ulizar mendi gaineko Santa Krutz ermita zaharraren aztarnak topatu zituen. Eta bestetik, aipatu leize zuloan, Burdin aroko zeramika piezak topatu zituen lehenengo aldiz; kanpaina hartan egindako lorpenei esker, Ulizarko eremu hura guztia Nafarroako Inbentario Arkeologikoan sartu zen.

## PAGAMENDIN,

### GOTORLEKUAREN GARBIKETA LANAK

Andoaingo Pagamendiko inguruak garbitzen aritu dira Burdinako boluntarioak aurreko asteetan zehar. Abuztuan zehar, berri, bigarren faseari ekingo diote. Indusketa lanak egingo dituzte hain zuzen, Aranzadi elkarteak Alfredo Moraza arkeologoaren ardurapean eta Andoaingo Udalaren laguntzarekin. Prozesuaren amaieran, aurkitutako guztia herritarrei jakinaraziko zaie, ohi denez. Informazio panela ipini eta bisi-



Espe Beramendi, Jose Luis Gracia, Jose Alcantara, Patxi Aznar eta Txanka Arruti Pagamendiko lubakiak garbitzen.

ta gidatuak antolatzea pentsatua daukate, besteak beste.

Pagamendin gotorlekua eraiki zen I. Guda Karlistan, 1840ean. Leizotz auzoan kokatzen da, egungo hilerritik gertu. Pagamendiren balio estrategikoa zela-eta, bere punturik garaienean gotorlekua eraiki zuten; soldaduentzat defentsarako lubakiak eta kanoiak ezarri ziren inguruan. Gerra amaitu ostean, berri, agintari militarrek eraikuntza guztiak birrintzea agindu zuten.

Gaur egun, gotorlekua izan zenaren berri ematen duten frogak ugari topa daiteke. Lubakien aztarna fisikoez gain, bailarako jendeak Gazteluko Ttonttorra deitu izan dio beti leku horri.

Bestalde, Guda Karlisten garaian Andoainen eraikitako gotorlekuak aztertu dituzten historialariek lekuari buruzko zenbait agiri historiko topatu ahal izan dituzte (*Las fortificaciones de la época carlista en Andoain*. Egileak: Alfredo Moraza, Javier Bucos eta Miren Garcia. Leyçaur 12 aldizkaria).

## ELDUAINEN ETA ASTEASUN

2015ean ekin zioten Elduaingo Sales bailaran ahaztuta zegoen Errotazar errota berreskuratzeari, eta aurtengoan jarraipen lanak egingo dituzte. Ezaugarri bereziko errota da, ura ateratzeko bi errotape baitzuten. Azken hamar urtetan, errota horretaz gain, Burdinak bost karobi zaharberri ditu Elduainen.

Antzeko lanak egingo dituzte Asteasun ere, Elizmendiko garbitokian.

## LEITZARAN BAILARAN

Leitzarango bailaran zenbait auzolandegei kokatuko ditu Burdina taldeak hurrengo asteetan. Garbiketa eta kontserbazio lanak egingo dituzte horietan, gehienbat. Besteak beste, Mustarreko burdinola zaharra kokatu zen parajeko bazterrak garbitzen jarraituko dute, aurreko urteetan bezalatsu.

## ORTZAIKAN KAREA EGITEA

Ortzaika baserriko (Goiburu auzoa) karobia piztu eta bertan karea egingo

dute Burdinako kideek urrian, bigarren urtez. Iaz pilatu zuten eskarmentuaz baliatuko dira, asteburu oso batean karea egiteko eta zeregin horren nondik norakoak deskribatzeko bertara azaltzen diren herritarrei.

## HERRITARREI ZABALTZEA

Arbasoek eraikitako ondare historikoa auzolanean berreskuratu eta txukundu ostean, herritarrei jakitera ematea da Burdinaren azken pausoa, eta atal horretan sakontzeko asmotan da. Taldea beti agertzen da prest antolatuta dauzkan auzolandegei buruzko azalpenak emateko, hala eskatuz gero. Joan den asteartean, konparazio batera, Saharatik Buruntzaldera uda pasatzera etorri berri diren sei haurrekin bisita gidatua antolatu zuten, Leitzarango Txotaneko meategietan barrena. Meategien aztarnen eta meatzarien bizimoduaren gainean azalpenak jaso zituzten, eta aldi berean, pala eta aitzurrak hartu eta Burdinako boluntarioen gisa lan egiteko aukera eduki zuten haurrek.



## Teknologia berriekin trebatzeko aukera



Haur eta gaztetxoel begirako jarduera da "Kultura Digital@" izenekoa.

Kultura Digital@ izena duen egitasmoak autobus bat prestatu du puntako teknologia-ekin, herriz herri tailerrak eta erakustaldiak eskaini asmoz. Urnietara datorren uztailearen 28an iritsiko da, Pintore kalea, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Orona Fundazioaren eskutik eta Urnietako Udalarekin elkarlanean. Antolatzaileek Urnietako bisitaldiaren helburua argi eta garbi adierazi dute prentsa oharrean: "Kanpaina honen helburua, 8 eta 16 urte bitarteko haur eta gazteen artean teknologien erabilera egokia eta sortzailea bultzatzea da. Bertan, Kode\_Eskolak antolatutako programazio-tailerrak doan eskainiko dizkie 8-16 urteko gaztetxoel".

Besteak beste, bideojokoak programatzen ikasteko aukera edota webgunea sortzeko tailerrak eskainiko dira.

Adinaren arabera tailer ezberdinak antolatu dituzte:

### PROGRAMATU ORDENAGAILURIK GABE

8-12 urte. "Jolas erraz bezain dibertigarrien bitartez, programazioan funtsezkoak

diren hainbat ezagutza lor daitezke".

### SCRATCH EZAGUTU

8-12 urte. "Primeran pasako dugu jolas txikiak programatzen, gero etxera eraman ahal izango ditugunak".

### BIDEO-JOKOAK SORTU

8-14 urte. "Tresna simple bat erabiliz, bideo-joko simple bat sortu ahal izango dugu! Diseinuan nahiz programazioan egingo ditugu hastapeak, sormena nahiz logika martxan jarri beharko ditugularik...".

### PROGRAMATU

12-16 urte. "45 minutuko ikastaro honetan, programazioa zer den ikasteaz gain, gure lehen programak sortuko ditugu. Zatoz eta has gaitzen programatzen".

### WEBGUNEAK SORTU

12-16 urte. "45 minututan oinarrizko kontzeptuak landuko ditugu, zure irudimenearekin nahi duzun web gunea sor dezazun".

### Uztailak 28, ostirala

10:00-14:00 / 16:00-20:00.  
Pintore kalea.

## Ur festak uda honetan



Kiroldegian ur festa bana izango da uztailearen 29an eta abuztuaren 26an.

Sanmielak igaro arte, Zanpatuz taldeak atsedean hartuko du

## Irteera ederra Piriniotara

Hogeita hamabost lagunek osatu zuten **Zanpatuz mendi taldeak** antolatutako Pirinioetarako irteera. **Joxeramon Jauregik** gidatuta, bost orduko ibilaldia egin zuten larunbatean, Midi d'Ossau erpin ezaguna inguratuz. Larunbatean Respomusoko aterpera igo ziren, eta handik La Sarra urtegiara buelta. Bost ordu larunbatean, eta sei paseak igandean, eguraldi bikainarekin. Pueyo de Jacako Vista Quinta Alegre aterpean ere giro ona eduki zuten.

Zanpatuzek atsedena hartuko du hurrengo hilabeteetan. Sanmielak pasa ostean, urriko hirugarren asteburuan ekitaldi pare burutuko da. Mendi Film festibala Urnietara etorriko da, eta asteburu berean, Zuberoako mendietara irteera antolatuko da, **Koldo Tapiaren** eskutik.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



**Gipuzkoako Foru Aldundia**





## KARRIKAKO JAIK

# Karrika auzuneko jaiak

Uztailaren erdialdean jaiak hitzordua du Karrika auzunean. Tradizio handiko festak dira auzokideentzat eta aurtengoan, bereziki, antolaketa mailan parte hartzea nagusitu da.

Berrogeita zortzi orduz hamaika ekitaldi antolatu dituzte, eta guztien artean danborrada eta play back saioa nabarmendu behar dira.

**Errifan saridunak: 1715, 1729, 1575, 2928, 1210**



Larunbat iluntzeko danborrada umore onean igaro zen. Kalez kale irten aurretik Uribesalgo musikariaren izena duen pieza eskaini zuten, Fernando Uribesalgoren senitartekoak bertan zirela.



Haurrak danborradaren aurretik joan ziren, kalejiran. Auzoko jaietako argazkiak eta bideoak ikusgai daude aiurri.eus webgunean.

## TXINDOKI TABERNAREN URTEURRENEKO FESTA

1957ko uztailaren 15ean Elo-segi familiak Txindoki tabernaren ateak zabaldu zituen, lehen aldiz. Irekieraren 60. urteurrenean, atzoko eta gaurko jabeek data seinalatua ospatu zuten. Ondo ospatu ere, egun osoko jaiarekin. Egundian, Axeriek eta Olagain taldeak sorpresa modura omenalditxoak egin zieten. Hortik aurrera otorduak eta musika nagusitu ziren.





# Santio jaiak Villabonan, uztailaren 24tik 31ra



2017, uztaila

**Keinu**

- Festetako zapiak, blusak...
- Dantzarako arropa
- Baserritar jantziak
- Era guztietako bordatuak (txapelak, banderak...)

Kale Nagusia, 12. ANDOAIN  
637 283 224 - [keinuandoain@gmail.com](mailto:keinuandoain@gmail.com)  
[www.txapelasybordados.com](http://www.txapelasybordados.com) - [www.txapelaketabordatuak.eus](http://www.txapelaketabordatuak.eus)

**Gora Santioak!!**



# Badatoz Santioak!

Iyuya Urrutia Goya # Antropologoa

Txupinazioa jaurti eta, txaranga eta dulzainaren doinuekin batera, gogoz plaza-ratzen gara billabonatarak. Gozamina, gaua, dantza, izerdia, garagardoa, Rainbow-eko photocalla, selfieak... Billabonatarrok harro gaude gure jaiez. Eta ez da gutxiagorako, herritarrontzat udan egiten diren onenetakoak izango dira. Uda sasoi ona, ordea, terraza batean lagunartean garagardo batzuk edan, eta buruari buelta batzuk emateko ere.

Herriko jaiak altxor kultural preziatua dira, urte urte bizirik iraun eta behar den moduan zaintzen ditugunak. Guztioi iruditzen zaigu norberaren herriko festak bereizgarri propioak dituztela, inork ezin arbiatu dituela. Hala ere, munduko hainbat ospakizunekin parekatuz gero, hain ezberdinak al dira? Nik esango nuke cromagnon gizakiaren biziera ere ez zela izango gaur egungo garagardo-azokaren hain desberdina. Izan ere, mundu osoko jaietan eta gizakiaren historian elementu komunak ageri dira: jatea, edatea eta musika.

Jakina da Euskal Herrian ia jai guztiak santuen edo ama birjinen inguruan egiten direla: San Fermin, Ama Zuria, Santo Tomas, Karmengo Ama, Santioak... Eliza katolikoak ekarri zituen, bai santuak bai eta gauza sakratuak ere, baina festak lehenagokoak dira. Gure arbasoen jaiak dagoenez, urtarok, arrantzak, uzta biltzeak, eguzkiaren eta ilargiaren faseak eta abar ageri dira haien egutegian. Ostera, gaur egun gehienak desagertu egin dira gure gizarte-balioetatik, denak ez esatearren. Eskerrak Inauteriak eta akelarreak geratzen zaizkigun, Europako azken indigenak garelako baiezatzeko!

Gehienok bizitza itsasotik eta mendie-



tatik urrun samar egiten dugu aspalditik. Urtaoek berogailua piztu ala ez jakiteko balio digute eta ilargia non dagoen ere ez dakigu mugikorretako linternak asmatu zirenetik. Udaberriaren hasiera ospatzeak ere, Ibizako azken hippyen artean bakarrik du arrakasta. Horiek horrela, argi dago gauzak asko aldatu direla azken urteotan: gizartea eta gazteak gero eta urrunago gaude, zoritxarrez, naturatik eta, zorionez, elizatik.

Baina, tira, orduan, zer demontre da gaur egun ospatzen duguna? Gizakia hasieratik agertu da jaiaren errituari lotuta, taldean eta modu antolatuan poza adierazteko. Denok sentitzen omen gara leku edo herri baten zati, eta horren lekuko dira oraindano bizirik dauden jaiak. Lehen santua-edo omentzen genuen, orain, ordea, gehiago ikusten dut nik euskal nor-

tasuna, kultura eta izaera aldarrikatu nahia. Hori dela-eta, hor ibiltzen gara, goizeko lehen orduetatik, baserritar jantziak lisatu, bertsolariak entzun, konpartsan, edo kantu-jiran izerditzen.

Hala ere, garaiari erreparatuz, azken urteotan zenbait aldaketa sumatu dut gure inguruko jaietan; genero-rolak eta harremani dagokien horretaz ari nahiz. Entzun besterik ez dago udako jaietan gertatzen direnak: emakumeon kontrako indarkeria eta erasoak, emakumeek jaietako hainbat ekitalditan parte-hartzearen inguruan sortutako auziak...

Antropologo grinatsu moduan, uste dut jaietan herri baten ohiturak eta nortasuna mantentzea garrantzitsuak direla, baina funtsezkoagoa iruditzen zait gaur egun pertsona oroaren oinarriko eskubi-deak betetzea.

Egia da emakumeon jaietan parte-hartzeoko interesa gero eta handiagoa dela; horren adierazgarri dira, parekidetasunari keinu bat eginez, aurtan Behar Zanak antolatu duen pala txapelketa mistoa, Soka-dantzan emakumeak ere izatea Behar Zana, bolo taldeko emakumeen parte hartzea, sexu-erasoak ekiditeko eta feminismoaren inguruan gaztetxeak antolatutako jarduerak. Gainera, taldean poza adierazi edo ondo pasatzeko horrelako ekintzak egitea, askoz ere indartsuagoa izaten da edozein ideia politiko, sinbolo edo diskurtso baino.

Hala ere, asko dugu egiteko; estereotipo eta rol asko ditugu hausteko. Gatazka hori behin betiko gaintuz gero, uste dut kulturalki ere aurrera egiteko aukera berriak irekiko genituzkeela, herritarrok beste era bateko jaiak sortu eta herri-nortasun berri bat garatuko genukeelako. Jaietan ondo pasa, disfrutatuta eta errespetatu!

## GUTUNA

### REMIRI OMENALDIA UZTAILAREN 31N

Remi Gogoan Ekimena



Gutun honen bidez, aurtan ere Santio jaien barruan Remiri egingo diogun omenaldian parte hartzeko gonbitea luzatu nahi diegu herritar guztiei.

8 urte igaro diren arren, egia, justizia, errekonozimendua eta erreparazioa exijitzen jarraitu beharra daukagu.

2009ko uztailearen 31 hartan, Remi Ayes-taran Amasa-Villabonako herri ordezkari bezala ari zen lanean, Ertzaintzaren probokazioei muzin egin eta festak bakean bukatu zitezten ahaleginean. Baina ez zioten utzi, bihotza leherarazi zioten.

Oraindik inork ez du azalpenik eman, ezta ardurarik bere gain hartu ere. Bada garaia Remiri zor zaion aitortza egiteko!

Duela bi urte EAJ-k omenaldia jaietako programa ofizialetik kentzea erabaki zuen arren, ez diegu uko egingo gure aldarrikapenei, bidezkoak direla sinesten baitugu.

Bide horretan, urte hauetan guztietan herritar asko eta askoren babesa sentitu dugu eta hala izaten jarraitzea nahiko genuke. Beraz, uztailearen 31n, arratsaldeko 20:00etan, Remiren izena daraman ibilbidean dugu hitzordua.

# Arretxe

ERAIKUNTZAK S.L.

Laskibar bailara, 4 / 3-20 lokala - Tel.: 669 479 496. - Irura

Jaiak  
ondo  
igaro

## OGI GOXO

FESTAK ONDO IGARO!

**OGI-GOXO**

AMASA-VILLABONA  
943 693 294

Kale Nagusia, 26.

## OGI ZURI

**OKINDEGIA**

ASTEASU  
943 691 896

Lizarrate-eta, 32.  
Elizmendi auzoa.

**OGI-ZURI**

ZIZURKIL  
943 691 000

Bulandegi bidea 1-3.

Ogi berezi eta artisauak - Etxerainoko zerbitzua

## BASAJAUN LIBURUDENDA

basajaunliburudenda@gmail.com

Testu liburuak enkargatzeko garaia heldu da.  
Liburuak forratuak eraman ditzakezu prezio berdinean.  
Ikastetxe eta kurtso guztietako testu-liburuak saltzen dira.

Ondo pasa Santiotan!

Escolako mantalak  
Jolas didaktikoak  
Eskolarako tresnak

Nagusia, 29 - VILLABONA - Tel./faxa: 943 691 651

## ARINDU

FISIOTERAPIA  
OSTEOPATIA

943 69 31 13

Ondo pasa  
festetan!

Errota, 7-behea  
20150 Villabona

# SAHATSA

BELAR-DENDA ETA DIETETIKA ZENTRUA

Jai zoriontsuak igaro

KONTSULTA  
NATURISTA

Kale Berria, 50  
Villabona  
943 694 279





# Suziria eta deia, odol-emaileen eskutik

**ODOL-EMAILEEN ELKARTEKO KIDEAK ARDURATUKO DIRA AURTENGO SANTIO JAIETAKO SUZIRIA BOTATZEAZ. HARRITUTA, BAINA POZIK HARTU DUTE GONBIDAPENA.**

Orain 35 bat urte, Zizurkilen sortu zen Odol-emaileen taldea eta garaiko medikuaren etxean biltzen ziren hasieran taldekideak. Gerora, Villabonan Txermin auzoko osasun etxea zabaldu zutenean, bertara etorri ziren. Amasa-Villabonako herritarrez gain, Zizurkil nahiz Adunakoak ere biltzen dira eurekin hasieratik, Oria behe bailarako departamenduetako bat da. Pili Zapirain billabonatarra orain 22 urte hasi zen taldean bolondres lanetan, Marisa Gaztañagarekin batera. Nieves Berasategi, berriaz, duela 17 urte. Azken hau taldeko bozeramailea da azken urteotan. Urte asko daramate taldean eta oso gustura sentitzen dira bertan. "Armonia behar da boluntario talde batean lanean aritzeko. Harreman eta giro ona dugu gure artean eta horrek asko laguntzen digu aurrera egiten".

## BI HILABETEZ BEHIN

Hilabete pareetako (otsaila, apirila, ekaina, abuztua, urria, abendua) azken ostiraletan, 18:00etatik 20:30era, elkarteko hamaika pertsona aritzen dira Villabonako anbulatorioan odol-ateratzeko antolatzen. "Bederatzi kamilla jartzen dira txanda bakoitzean, baina odola eman aurretik, mediku eta erizainek galdetegi zabala eta froga ugari egiten dizkiete emaileei. Kontrola zorrotza da eta hala izan behar du gainera, pertsona baten odola ematen baitzaio besteari", adierazi du Nieves Berasategik. Villabonako odol ateratzeek badute ezauzgarri bat, odola eman ondoren, emaile bakoitzari ogitarteko beroa eskaintzen zaiola, nahi duenak, baso ardorekin. "Gizarte Zerbitzuen baitako taldea gara gu eta haiek arduratzen dira ogitartekoak ordaintzeaz". Pili Zapirain odol-ateratze saio guztietara gerturatzen da anbulatoriora, bera arduratzen delako emaileen karnetetan datak jartzeaz. Gainerako taldekideak txandakatu egiten dira. Marisa Gaztañagaren ustez, odola atera aurretik egiten diren frogak



Nieves Berasategi, Pili Zapirain eta Marisa Gaztañaga.

## ODOLA EMATEKO AUKERAK

Eskualdeko herritarrek, Gipuzkoa osoan zehar eman dezakete odola. Bakoitzari ondoen datorkion lekuan:

- Villabonako osasun etxean, hilabete pareetako azken ostiraletan.
- Andoain edota Tolosako anbulatorioetan hila-betero.
- Asteasuko Kultur Etxean hiru hilabetez behin.
- Donostiako Manuel Lekuona kaleko zentralitan egunero.

oso garrantzitsuak dira. Odol-emaileen karneteen, besteak beste, bakoitzaren odol mota zehazten da, "eta hori oso baliagarria da istripu baten aurrean, esaterako".

## 18-65 URTE BITARTEAN

Herritarrek, oro har, deialdietara ondo erantzuten dutela diote, baina nagusiki, dei bereziren bat dagoenean gerturatzen direla nabarmendu dute, "gainontzean gehiago kostatzen da haiek erakartzea" eta hori orekatzea lortu nahiko lukete. Otsaila eta urria izan ohi dira odol-emaile gehien biltzen dituen hilabeteak. Kopurua zehaztea ez da erraza, aldakorra izaten baita, baina bataz beste, 60 bat lagun kalkulatu ditu Pili Zapirainek saio bakoitzean. 25, 40, 50, 60 edo 70 aldiz odola eman duten pertsonen omenaldia egiten zaie urtero, bazkariak gain, domina eta oroigarriak emanez.

Diotenez, 18 urte betetzean, ilusio handiarekin hasten dira gazteak odola ematen. Baina gerora, gehiengoak ez du aurrera jarraitzen. "Odola emateko adin-tartea 18 urtetik 65 arte luzatzen

**"Odola ez da iturria irekita ateratzen, eta jendea horretaz konturatzea beharrezkoa da"**

da. 65etik aurrera, bakoitzaren osasun egoeraren arabera luza daiteke tarte hori. Emakumeek urtean hiru aldiz eman dezakete odola eta gizonek lautan", zehaztu dute.

## POL TSA BAT, HIRU BIZITZA

Odol poltsa batek duen garrantziaz ere mintzatu dira eta poltsa bakoitzak hiru bizitza salba ditzakeela argitu du Nieves Berasategik. "Transplantez hitz egiten da maiz, baina odol poltsatik hasten da guztia, odolik gabe ez baitago aplikazio posiblerik. Ebakuntzetarako nahiz minbiziaren tratamenduetarako ere erabiltzen da odola eta poltsa asko behar izaten da. Baina odola ez da iturria irekita ateratzen, eta jendea horretaz konturatzea beharrezkoa da", dio.

## FESTA ETA ALDARRIA

Santio jaiei begira, festak disfruta ditzatela opa diete herritarrei. Taldekideek harrizta eta ezustean jaso dute suziria botatzeko proposamena. "Baina odola behar duenari edo etorkizunean inori falta ez dakion gure mezua zabaltzea garrantzitsua delako, baiezkoa erantzun dugu". Egunak aurrera doazen bezala, suziria botatzeko gero eta ilusio handiagoa dutela diote. "Festa giroari kolorea jartzen saiatuko gara eta guk ere ospatu egingo dugu gero". Baina noski, aldarriz egiteko ere aprobetxatuko dute uztailearen 24ko tarte, "urtean sei txanda bakarrik izaten dira eta oso garrantzitsua da egun horietan odola ematera gerturatzea. Kontsekuente izan dadila jendea: ematen ez bada, ezin baita jaso". Eta dei berezia egin nahi diete gazteei, "haiengan baitago etorkizuna".

**MP**  
boutique

Ondo pasa Santiotan

Kale Berria, 12. Villabona. Tel 943 690 865

Jai zoriontsuak igaro

**Iraola**  
Aholkularitza - Artezkaritza

ENPRESEN  
AHOLKULARITZA

Kale Nagusia, 37 - AMASA-VILLABONA  
Tel.: 943 692 763 • Faxa: 943 692 774

Ogitartekoak • Entsaladak  
Pintxoak • Plater konbinatuak

**LAIANE**

Ondo pasa Santio Jaietan

943 029 728  
Kale Berria 49, behe. Villabona



# Santioak Villabonan

## Egitaraua uztailaren 24tik 31ra

### Uztailak 24, astelehena

#### JAIEN HASIERA

- 16:00 Frontenisa, Olaederrako frontoian. Euriarekin, Bearzana frontoian.
- 17:00 Eskuz binaka herrikoia, Olaederrako frontoian. Euriarekin, Bearzana frontoian.
- 18:00 Txupinazoa, Amasa-Villabonako odol-emaileen elkartearen eskutik, Iraunkorrek txarangak alaituta.
- 18:15 Buruhandi, ipotx eta erraldoien kalejira, Jeronimo dultzaina taldeak alaituta.
- 18:45 Gaztetxoaren futbito finala, Errebote plazan.
- 19:30 Helduen futbito finala, Errebote plazan.
- 21:30 Herri afaria, Errebote plazan. Euriarekin Txermingo ikastolan.
- 23:30 Danborrada, Iraunkorrek txarangarekin. Kultur etxetik abiatuko da.
- 00:30 Dantzaldia, Iratzar taldearen eskutik, Errebote plazan.
- 01:00 Gazte garaiak oroitzuz, 40 urtetik gorakoentzako DJ emanaldia, Txistulari plazan.

### Uztailak 25, asteartea

#### SANTIO EGUNA

- 09:00 Diana, Loatzo musika eskolako txistulari taldeak alaituta.
- 10:30 XXXVII. Herri krosa haurrentzat, Altzin plazatik.
- 10:30 Korporazioaren bisita Santio egoitzara.
- 11:00 XXXVII. Herri krosa helduentzat, Altzin plazatik.
- 12:30 Buruhandi, ipotx eta erraldoien kalejira, Jeronimo dultzaina taldeak alaituta.
- 12:45 Sari-banaketa: Atari Bizi lehiaketa, Errebote plazan.
- 13:00 Soka-dantza, Oinkari dantza taldearen eskutik, Errebote plazan. Eguraldi txarra eginez gero, Bearzana frontoian.
- 18:00 Sokamuturra, Errebote plazan, Jeronimo dultzaina taldeak alaituta.
- 19:45 Perkusio emanaldi ibiltaria, Errebote plazatik abiatuta. Zo-zongo taldea: Kolpez Blai.
- 22:00 Oinkari dantza eskolaren emanaldia, Olaederra kiroldegian.
- 00:00 Dantzaldia, Zirkinik bez taldearen eskutik, Errebote plazan.

### Uztailak 26, asteazkena

#### SANTA ANA,

#### GAZTEEN ETA JUBILATUEN EGUNA

- 09:00 Diana, Jeronimo dultzaina taldearen eskutik.
- 10:00 Toka txapelketa, Salvadora jubilatuen etxearen eskutik, Olaederra kiroldegiaren ondoan. Euriarekin, Bearzana frontoian.
- 11:00 Patata tortilla lehiaketa, 11-17 urte artekoentzat, Txermingo ikastolaren azpian.
- 11:00 Jubilatuen eskularen eta margoen erakusketa, Berdura plazan.
- 12:30 Buruhandi, ipotx eta erraldoien kalejira, Loatzo txistulari taldeak alaituta.
- 14:00 Jubilatuen bazkaria, eta dantzaldia Xabier Zubeldia eta taldearekin, Txermingo ikastolan.
- 14:30 Gazteen bazkaria, Onddo gazte asanbladaren eskutik, Berdura plazan.
- 16:15 Zumba klase herrikoia, Maiatzaren Lehena plazan. Euriarekin, Olaederra kiroldegian.
- 16:30 Bola tiraldia, haurrentzat, Behar Zana elkarteko bola taldearen eskutik, Olaederrako bolatokian.

- 17:30 Gazteen poteo-kalejira, Orkresta Nazionalarekin, Errebote plazatik abiatuta.
- 17:30 Ur parkea, Txistulari plazan. Euriarekin, Txermingo ikastolan.
- 18:00 Pilota: Pala mistoa binaka eta eskuzko nagusien Santio Txapelketa, Bearzana frontoian.
- 18:00 Cycling mini-maratoia, Maiatzaren Lehena plazan. Euriarekin, Olaederra kiroldegian.
- 20:00 Eresargi eta Eresargi Txiki abesbatzen emanaldia, Gurean.
- 23:00 Kontzertua, Desira eta Kaotiko taldeak, Errebote plazan.

### Uztailak 27, osteguna

#### ATSEDEN EGUNA

### Uztailak 28, ostirala

#### KOADRILEN EGUNA

- 12:00 Gora Kaletxiki bandaren kalejira, Malkar plazatik abiatuta.
- 14:30 Koadrillen bazkaria, Etxeondo parkean.
- 17:00 Koadrillen kalejira, Incansables txarangarekin.

**AMASA**  
OKINDEGIA KAFETEGIA

**Gora Santioak**

Berria, 64 - Villabona  
943 693 831

**Namaste**  
ileapaindegia

943 047 955 - 640 866 308  
namasteileapaindegia@gmail.com  
f namaste.ileapaindegia

Etxeondo auzoa, 7 behea  
Villabona

Ondo pasa festetan!

**villabona**  
optika audiologia

Ondo pasa festetan!

Deitu eta hartu txanda konpromezurik gabe

**VILLABONA OPTIKA AUDIOLOGIA** hamar urtetik gora Villabonan.  
Zure ikusmena eta entzumena zainduz.

**Kale Berria 23, A.**  
943 111 840  
villabonaoptika.com



- 20:00 Dantzaldia, Honat taldearen eskutik, Errebote plazan.
- 21:30 Kafe eta likore dastaketa jubilatuentzat, DJ Txispyren musikak alaituta, jubilatuen biltokian.
- 00:00 Zezen suzkoa, Errebote plazan.
- 00:30 Dantzaldia, Honat taldearen eskutik, Errebote plazan.

## Uztailak 29, larunbata

- 09:00 Plater tiraketa, Loatzo tiro elkar-tearen eskutik, Atxutu-Mandoegi zelaian.
- 10:00 Xake jokoa helduentzat, XXXII. Santio Txapelketa, 'J.M. Ezkai memoriale', Txistulari plazan.
- 10:00 VI. Eskulangintza azoka, Malkar plazan. Goiz eta arratsalde izango da bertan.
- 11:00 Kultur ikastaroetako lanen erakusketa, Berdura plazan.
- 11:30 Santiotan kantari kantujira, Bearzana frontoitik abiatuta.
- 16:00 Bola tiraldia, helduentzat, Olaederrako bolatokian.
- 16:00 Xake jokoa haurrentzat, Txistulari plazan.
- 18:00 Santiotan kantari kantujira, Bearzana frontoitik abiatuta.
- 18:00 Joko garbi, Errebote plazan.
- 19:30 Txekor jatea eta sagardo dastaketa, Txermingo ikastolan.
- 23:00 Dantzaldia: Rock & Classics project taldea, Errebote plazan.

## Uztailak 30, igandea

- 09:00 Diana, Loatzo musika eskolako txistulari taldeak alaituta.
- 10:00 Irristaketa lasterketa herrikoia, haurrentzat, Eroski paretik abiatuta.



- 10:30 Irristaketa lasterketa herrikoia, helduentzat, Eroski paretik.
- 11:00 Marrazki lehiaketa haurrentzat, Oria merkatarien elkar-tearen eskutik, Berdura plazan.
- 11:30 Halterofilia saioa, VII Santio Saria, Errebote plazan. Euriarekin, Olaederra kiroldegian.
- 12:30 Animalien ikuskizuna haurrentzat, Gorritirekin, Olaederra kiroldegiaren ondoan.

### ERROMERI EGUNA

- Oinkariren eskutik, Errebote plazan.
- 17:30 Kalejira, Lizartzako Isk&bila txarangaren eskutik.
- 18:00 Sagardo eta pintxo dastaketa.
- 19:00 Ostolaza eta Narbaiza.
- 22:30 Bertsolariak, Txermingo ikastolan. Amets Arzallus, Andoni Egaña, Beñat Gaztelumendi, Maialen Lujanbio, Oihana Iguaran, Unai Mendizabal. Gai-jartzailea: Amaia Agirre.
- 00:00 Kristina eta Amaia.
- 01:00 Elizagoien ahizpak eta Matin.
- 02:30 Larrain dantza herrikoia.
- 03:00 Ezten Giro.

## Uztailak 31, astelehena


### SAN INAZIO EGUNA

- 09:00 Diana, Jeronimo dultzaina taldearen eskutik.
- 10:30 Haur parkea, Arroan: Slide, ohe elastikoak, Spiderman txirrista, oihana... Eguraldi txarra eginez gero, Olaederra kiroldegian.
- 11:30 Errebotea: Villabona-Hazparne, Errebote plazan.
- 12:30 Erraldoi, ipotx eta buruhandien konpartsa, eta ondoren emanaldia Malkar plazan. Donostiako Irrintzi konpartsak eta Villabonako erraldoi, ipotx eta buruhandiek hartuko dute parte.
- 13:00 Gora Kaletxiki bandaren emanaldia, Txistulari plazan. Eguraldi txarra eginez gero, Gurea zinean.
- 18:00 Sokamuturra, Errebote plazan, Jeronimo dultzaina taldeak alaituta.
- 21:00 Rock emanaldi ibiltaria, Rockalean, Errebote plazatik abiatuta.
- 23:00 Santioak irudietan: Herritarrek helarazitako argazkien proiektzioa, Errebote plazan. Eguraldi txarra eginez gero, Gurea zinean.



### FESTETAN ERE EUSKARAZ

Euskararen erabilerak Villabonan behera egin duela eta, aurtengo Santioetako zapiak euskararen aldeko mezua izango du: "Herriko festetan eta beti euskaraz". Ateratako dirua euskararen aldeko mugimendua laguntzeko erabiliko da. "Jantzi zapia eta bizi Santioak euskaraz!" mezua luzatu dute bultzatzaileek.



### JAIEN JARRAIPENA AIURRI.EUS WEBGUNEAN

Urtero bezala, Santio festen eta gainerako eskualdeko udako festen jarraipena egingo du Aiurri aldizkariak [www.aiurri.eus](http://www.aiurri.eus) gunean nahiz sare sozialetan. Bertan festetako ekintzen berri azaltzearekin batera, argazki eta bideoak ere ikusi ahal izango dira.

### REMI GOGOAN

Uztailaren 31n, jaietako azken egunean, Remi Ayestaran gogoan izango dute senide eta lagunak. 20:00etan, Remiren izena daraman ibilbidean.

**Errota txiki...**

Pintxoak  
Platerak  
Musika zuzenean...

**Errota, 2-behea Villabona. 943 53 87 70**

**aukera ezberdin bat ...**

**BENITO**  
HARATEGIA  
URDAITEGIA

*Gora Santio jaiak*

Arroa Kalea, 4  
VILLABONA  
☎ 943 691 350

*Ondo pasa!*

**Eizmendi**  
ILEPAINDEGIA

943 69 13 79  
Kale berria, 19  
Villabona

**Eizmendi Anaiak**

- Kirol eta mendiko arropa eta materiala
- Ehizeko arropa
- Armen salmenta eta konponketa
- Kartutxoaren eskaintza handia

**Berria 19-21 • 20.150 Villabona**  
**Tel.: 943 692 623 / 688 844 983 • Faxa: 943 693 044**

**MERKEALDIA**

*Ondo pasa festetan!*



# Desira: "Herrian jotzea beti da polita"

**UZTAILAREN 26AN, KAOTIKOREKIN BATERA, KONTZERTUA ESKAINIKO DU DESIRA TALDEAK ERREBOTE PLAZAN. IÑAKI GOIKOETXEA ETA UNAI MUJIKAL TALDEAREN SORTZAILE BILLABONATARREK HARTU DUTE HITZA.**

**2012 urtean ekin zion bere bideari Desira taldeak...**

**Unai:** Dark Avenue izeneko taldean ibili nintzen aurrena, heavy klasikoa egiten genuen. Hura bukatu zenean, Iñakirekin elkartu eta beste talde bat sortzea pentsatu genuen. Marta Olea etorri zen abeslari bezala eta gitarrista Villabonako beste kide bat hasi bazen ere, hark utzi-takoa, Mintxo gehitu zaigu.

**Iñaki:** 2014 urtean kaleratu genuen lehen diskoa eta 2016ko martxoan bigarrena. Spotify gunean entzungai daude bi diskoak, baita Youtuben nahiz Facebookeko Desiraren orrian ere.

Taldean hiru kide ginenez, zuzenekoak ematea zaila zitzaigun eta lasai hartzea erabaki genuen. Orain, Mintxo gitarrista taldera etortzea garrantzitsua izan da guretzat. Esperientzia handiko gitarrista da eta musika kalitatean salto handia eman dugu.

**U.:** Bi urte jo gabe igaro eta gero, Irunen, Oiartzunen eta Azpeitian aritu gara motor jaialdian, baita Alegiako festetan ere.

**Zuzenekoekin aurrera jarraitzea al da zuen nahia?**

**I.:** Uztailearen 26ko Santiotako kontzertua da lotuta daukagun azkena. Abuztuaren geldialdia egin ondoren, kanta berriak egiten hasteko asmoa dugu. Ilusio horrekin gabiltza, kantu berriak egiteko gogoarekin.



Iñaki Goikoetxea eta Unai Mujika Desira taldeko kideak.

**U.:** Musikariak izanda, egiten duguna erakutsi nahi dugu eta, alde horretatik, zuzenekoak eskaintzeko gogoz gaude.

**Nola definituko zenukete zuen musika?**

**U.:** Erraz entzuten diren kantuak direla uste dugu. Rock alternatibo moduan izendatu arren, estiloa zehaztea ez da erraza izaten. Taldekideok musika estilo ezberdinak entzuten ditugu eta jasotako guztia kanporatzen dugu gero. Kanta berrietan estilo berriak sartuko ditugu.

**I.:** Gitarrista berriak duen esperientzia eta maila kontuan izanda, instrumentalki kanta indartsuagoak aterako dira.

**Kantuak zuen artean osatzen dituzue. Nondik nora?**

**U.:** Hasi eta buka, Desirako kideon artean osatzen ditugu kantuak.

**I.:** Kantuaren konposaketa gitarraren bidez egiten dugu eta, gitarrarekin batera, melodia sortzen hasten gara. Hitzak baino lehen osatzen dugu melodia.

**Melodiari bezala, intentsitateari ematen diozue garrantzia zuen kantuetan...**

**U.:** Marta abeslariak abesbatzan abestu izan du beti eta aurrez, akustikoagoa zen beste talde batean ere aritzen zen. Musika gogorra ere gustuko duenez, gurekin hasi zen. Oso ahots indartsua du.

**Uztailearen 26an Santio festetan arituko zarete...**

**I.:** Ez genuen halakorik espero. Talde ezagunen artean, izena ematea erabaki genuen eta, Kaotikorekin batera, bozketan bigarren eta hirugarren postuetan geratu ziren taldeak ekarrita, aurrekontuak gora egiten zuzenez, -eta herriko talde bakarra ginenez-, guri esan ziguten. Laugarren geratu ginen bozketan. Ilusioa egin zigun eta gustura arituko gara.

**Unai:** Orain lau urte ere jo genuen Santio festetan, Desiraren lehenengotako kontzertua izan zen. Gogotsu gaude orain, berriz ere. Herrian jotzea beti da polita.

**Nolakoa izango da Errebote plazan eskainiko duzuen kontzertua?**

**I.:** Ordu bete ingurukoa izango da eta kontzertu jarraia eta intentsioa izaten saiatuko gara. Sorpresaren bat ere egongo da, bertsioren bat tartekatuko baitugu. Herrian bertan, horrelako eszenatoki batean eta gauez jotzeak asko motibatzen gaitu.

**U.:** Asteaz zehar egokitzen da, baina

**arteca** RUBBER METAL SOLUTIONS

**Gora Santioak!**

Sacem industrialdea  
20150 Villabona  
943 691 700  
info@arteca.net  
www.arteca.net

943 50 88 33 Kale Berria, 56. Villabona

**IRUMA**

ILUSTRACIONES Y PAINTING & ESTETIKA

**Gora Santioak!**

**SANTIO JAIK - VILLABONA 2017**  
Uztailak 24-31

**JAIETAN ERE BELDUR BARIK #JARRERA**  
beldurbarik.org

AMASA-VILLABONA Villabonako Udala



Gazte eguna denez, Villabonako gazte jendea behintzat egongo da.

**Herritarrak kontzertura gerturatzeko deiren bat?**

**U.:** Kontzertua entzutera adin ezberdinetako jendea etortzea gustatuko litzaiguke. Ez da gazte jendeari bakarrik zuzendutako kontzertua. Zer eskaini badaukagula uste dugu.

**I.:** Gaur egungo kontzertuak ez dira lehengoak bezalakoak. Gazteagoak gineanean, kontzertuetan jende asko izaten zen, baina egun, irratian entzuten diren talde ezagunenak kenduta, ez da jende askorik biltzen. Agian taberna edo botelloiko giroak hoztu du kontzertuetakoa. Nik faltan botatzen dut lehengo giro hura.

**Gazteen artean entzuten den musika mota aldatu egin da azken urteotan...**

**U.:** Orain, orokorrean, beste musika estilo bat entzuten da. Gaztea irratian, esaterako, ez da musika heavyrik entzuten. Irratiak eragin handia du gazteek entzuten duten musika estiloarengan.

**I.:** Saltzen den musika jartzen du irratia, ez du egungo gazte talde alternatiboek egiten duten musika bultzatzeko lanik egiten. Gaztea maketa lehiaketan ere antzeko zerbait gertatzen da. Bertako gazte taldeei laguntzeko partxe modukoa da. Irabazle ateratzen diren taldeek egun entzuten den musika mota egiten dute. Saltzen den musika promozionatu nahi dute. Lehen, kontzertutik kontzertura ibiltzen ginen eta talde asko ezagutzen genuen, baina egun ez dago horrelakorik.

**Zer diozue parranda giroan tabernetan entzuten den musikaz?**

**I.:** Globalizatu egin da dena, baita musika ere.

**U.:** Mundu mailan entzuten den musika entzuten da herriko festetan ere. *Núme-*



Kaotiko taldea zuzenean arituko da uztailaren 26an. Haien aurretik, Desira taldea.

**“Orain lau urte ere jo genuen Santio festetan. Gogotsu gaude orain, berriz ere. Herrian jotzea beti da polita”**

*ros uno* deitzen dieten horiek denak entzuten dira etxe ondoko tabernan ere.

**I.:** Gazteak kontzertura etortzea animatuko genituzke lehenik eta musika-tresnaren bat jotzen badute, lagunekin elkarrekin eta beraien musika egitera. Gustatzen zaiena entzun dezatela, ez egun entzuten dena.

**Zein musika mota entzuten duzue zuek?**

**I.:** Gure garaiak markatu diguna, kontzertu eta tabernetan entzuten genuen musika edo gure etxekoek transmititu digutena. Baina egun entzuten den musika belaunaldietan zehar transmititzen bada, zerbait galdu egingo dela iruditzen zait.

**U.:** Zentzu batean, musikak pertsona egiten du. Hezi zaren giroko musika mota entzungo duzu, hori gustatuko zaizu eta horrek zure gaztaroa gogoratuko dizu. Nik adibidez, metalarekin batera, euskal musika herrikoia asko entzuten dut, –Benito Lertxundi, Pantxo eta Peio...–, gure sustraiak dira. Euskal kantu zaharretan, adibidez, letrek ia erabateko garrantzia daukate. Etxean txikitatik entzun ditut aitaren aldetik eta betidanik gustatu izan zaizkit.

**I.:** Nik ere denetik entzuten dut. Hori da, azken batean, aberasten eta ideia berriak sorrarazten dizkiguna. Bai betiko kantu herrikoia, frankismo garaian oinarritutakoak edota egun egiten direnak. Letrak egiteko garaian, arrazoï bat edo ideia horiek sortzera bultzatzen zaituen mugimendu sozial bat badago, askoz ere errazagoa da. Egungo bideari jarraituta, ordea, denak berdina jan, berdin jantzi eta berdina entzuten dugun puntura iritsiko gara. Zertaz hitz egingo dugu orduan?

**DESIRAKO KIDEAK**

- Unai Mujika bateria.
- Iñaki Goikoetxea baxua / gitarra.
- Marta Olea ahotsa.
- Mintxo gitarra.

**MUSIKARI LOTUTA, GAZTETXOTATIK**

Unai Mujika, Donostiako eskola batean hasi zen bateria jotzen ikasten, 16 bat urte zituela. “Orduz geroztik, –egun 29 dauzkut–, bateria jotzen jarraitu dut. Dark Avenue taldean hasi nintzen aurrena. 18 urterekin eman nuen lehen kontzertua Irungo Sala Tunken. Taldea desegin eta gero, geldialdi txiki baten ondoren, Desira taldea sortu genuen”. Iñaki Goikoetxea, berriz, 13 urterekin hasi zen baxuko eskolak jasotzen. “Nunbait taldearekin eman nuen lehen kontzertua 17 urte nituela, Villabonako gaztetxe zaharrean. Heavy metala egiten genuen. Hura bukatutakoan, Desira taldean hasi nintzen”.

**LABURREAN**

**Jaietako egun bat?**

**Unai:** Koadrillen eguna. Gazte nahiz heldu, herri osoa elkartuta, egun polita izaten da.

**Iñaki:** Gazte eguna. Onddo gazte asanbladak indarra hartu zuenetik Gazte egunaren dinamikarekin jarraitu da eta oso giro ona sortzen da gazte jendearen artean.

**Ekintza bat?**

**U.:** Kontzertuen zain egoten naiz beti; zein etorriko, zein ez. Eta aurten gu!

**I.:** Oso oroitzapen onak ekartzen dizkit Gazte egunean Elektrotarangarekin sortzen den giroak.

**Eguna edo gaua?**

**U.:** Eguna. Egunez atera eta gero gerokoak.

**I.:** Eguna. Jaietako egitaraua egunari begira antolatuta dago. Egunez izaten dira ekin-tzarik potoloenak.

**ALBIZU**  **KIROLAK**

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu

Kale Nagusia, 2 - Tel.: 943 693 131  
20150 VILLABONA


**Gozatu herriko jaiak!**



**RESA GUIPUZCOANA**

Iveco kamioi eta furgoneten salmenta eta konponketa


N-1 errepeidea 444 km.  
20150 Villabona.  
Tel: 943 690 400  
[info@resaguipezcoana.com](mailto:info@resaguipezcoana.com)  
[www.resaguipezcoana.com](http://www.resaguipezcoana.com)



**FLEMING IKASTETXEA**  
Otelarre, 35  
20150 VILLABONA  
Tel./Faxa: 943 691 413  
012277aa@hezkuntza.net  
Arroa z/g. Tel.: 943 693512

[www.fleming.hezkuntza.net](http://www.fleming.hezkuntza.net)

**ERNIOBEA BHI**  
Otelarre, 35  
20150 VILLABONA  
Tel./Faxa: 943 693 733  
012952aa@hezkuntza.net



**Erniobea B.H.I.**  
Villabona  
[www.erniobea.eus](http://www.erniobea.eus)

ONDO PASA SANTIOTAN!



# “Pala mistoko partidatan bildu da jenderik gehien”

**ENEKO MAIZ BILLABONATARRA INDARREAN DABIL TRINKETEKO MODALITATEAN, BAINA FRONTOIAN ERE JARRAITZEN DU. BERE IBILBIDEAZ GAIN, SANTIO FESTAK HIZPIDE IZAN DITU ELKARRIZKETAN.**

## Udaberri eta uda paregabea zurea, trinketea...

Gustura nabil, bai. Urtean zehar trinketeko bost txapelketa markatuta izaten ditugu eta horietatik Gipuzkoakoa, lurraldeka jokatzeko den Gravni txapelketa, Euskal Herrikoa eta Espainiakoa irabazi ditut. Ez gaude kexatzeko. Abenduko Gipuzkoa mailako banakakoan finalurrerakoa galdu egin nuen, eskuetatik gaizki ibili nintzelako. Baina gero, pixkana eskuetatik errekupeatu eta emaitza onak lortu ditut.

## Trinketea ez da pilota modaliterik ohikoena hegoaldean...

Ez, inguru honetan garrantzia gehiago dauka ezker paretak edo frontoia. Oraindik behintzat, frontoiko partidak ere jokatzeko ditut eta ikusi besterik ez dago frontoian askoz ere jende gehiago biltzen dela. Iparraldean, ordea, trinketeak jarraitzailez beteta egoten dira.

## Zein ezberdintasun nabarmenduko zenuke frontoia eta trinketearen artean?

Pilotak bereziki. Nik asko sufritu izan dut frontoiko pilotarekin eta horregatik hasi nintzen trinketea. Jokamoldea eta tantoa egiteko era ezberdina da oso, batean edo bestean. Trinketea eskubiarekin jokatzeko da gehienbat, leku itxia da eta teilatua duenez, hango formatara egokitu behar da. Partidak gogorak joaten dira askotan. Frontoiko partidak 22ra bezala, 40ra izaten dira trinketeko gehienak.

## Mundietarako prestatzen ari zara...

Azaro amaieran jokatuko dira mundialak Buenos Airesen (Argentina) eta urriaren amaieran esango digute nortzuk jokatuko duten/gun.

## Argentinarako bidea hartzeko aukerarik ikusten al duzu?

Esperantza badut, batez ere aurten izandako emaitza onengatik, baina oraindik ez dakit. Ea esperientzia hori bizitzeko zortea izaten dugun. Mundu guztiko pilotariak bilduko dira.



Eneko Maiz billabonatar gaztea.

**“Eskuek uzten didaten bitartean, trinketea eta frontoian ere jokatzeko jarraitu nahi dut”**

## Trinketea edo frontoia aukeran?

Trinketea frontoian baino hobeto moldatu izan naiz, baina horrek ez du esan nahi frontoian gustura ibiltzen ez naiz nik. Eskuek uzten didaten bitartean, frontoian ere jokatzeko jarraitu nahi dut.

## Behar Zana pilota eskolako gaztetxoaren begirale zara...

Iaz hasi eta aurten ere jarraitu egin dut lan horretan. Gustura ibiltzen naiz umeekin. Ondo joan da aurtengo denboraldia. Emaitzen aldetik, umeak finalerara iritsi dira eta ilusioa egiten du horrek, lana ondo egiten ari garen seinale da.

## Indarrean jarraitzen du pilotarekiko zaleatasunak Villabonan...

Bai. Ume asko dugu, baina alebinetatik aurrera zuloa ere badugu. Txikiak au-

rrera doazen bezala, ea maila guztiak orekatzea lortzen dugun. Umeek aukera asko dute kirol mailan eta askok futbolari ematen diote lehentasuna.

## Frontonisa, eskuz binaka edo pala mistoko txapelketak antolatzen dituzue Santioetan. Zein erantzun izan dute?

Pala mistoko partidatan jende asko bildu da frontoian eta, alde handiarekin, partidak horietarako eman du izena jokalariei gehiengoak. Inguruko gazteek raketan ibiltzeko ohitura handia dute eta frontonisean ere jende dezente aritu da. Eskuzkoan, berriz, federatu gabeko txapelketa eta afizionatu mailakoena jokatu dira. Frontonisa eta federatu gabeko finala uztailaren 24an izango da Oñateko frontoian. Pala mistoa eta eskuz afizionatua, berriz, uztailaren 26an.

## Antolakuntzan ez ezik, jokalariek gisa ere hartu duzu parte...

Iaz bezala, Villabonako Santioetako afizionatuen mailako txapelketa eta Getariakoan hartu duzu parte. Villabonakoan final-laurdenetan geratu gara, finalerdia jokatuko ditugu Getariakoan.

## Laburrean

### Santio zalea al zara?

Gogoko ditut Santioak. Ahal dudanean ateratzen naiz, are gehiago plaza ondoan bizita! Libre nagoenean, parranda pixka bat egitea gustatzen zait. Baina, mundietarako proba fisikoak abuztuaren 5ean ditugunez, zaindu egin beharko dugu.

### Zein ekintzatan hartuko duzu parte?

Koadrillen eguna festetako egunik politenetakoa izaten da, herriko jende gehiena biltzen delako. Urtero ekartzen dute kontzertu onen bat eta hori ikustea ere gustatzen zait.

### Gogoko hitzordua?

Erronomia eguna. Baserritarrez jantzita hartzen dut parte.

### Lana, kirola eta festa bateragarri al dira?

Astean zehar behintzat lana izango dut, baina denarako denbora hartu behar. Festetan alferdu egiten gara; gehiegi jan, edan, lo egin... Kirola egiten ere jarraitu egin beharko dugu eta gehixeago zaindu, mundietarako proba fisikoak begira.

### Eguna edo gaua nahiago?

Egunean zehar gutxiago biltzen gara lagunak eta nahiago dut gaua.

### Festetan jateko? Eta edateko?

Koadrillen egunean paella edo oilasko erreka. Festetan etxean ez afaltzeagatik, edozein gaua! Edateko, kalimotxo edo kubataren bat tarteka.

### Parranda giroan, dantzarik bai?

Dantza gutxi, ez da gure fuertea. Baina gustura entzuten dut edozein musika.

### Musika motaren bat bereziki?

Festa giroko, trikitixa edo reggaettoa.

### Festarako konpainia?

Lagunak, koadrillako lagunak. Hori ez dute huts egiten. Herrikoak gara gehienak, eta denoi gustatzen zaigu parranda pixka bat egitea.

**Urrizpe Kafetegia**

- Afariak egunero
- Pintxo-potea astearte eta ostegunetan

Kale Berria 45 • Villabona  
943 572 490

*Ono pasa Santioak!*

**ACADEMIA IDIOMAS G.F ANDOAIN**

Cambridge English Exam Preparation Centre

943 591 508

**UDAKO IKASTAROAK**  
baita abuztuaren ere!  
eta datorren ikasturterako,  
ez itxaron gehiegi!

2017-2018 MATRIKULA ZABALIK

- Zentzuzko prezioak.
- Maila guztiak eta Cambridge azterketerako prestakuntza.
- Klaseak egunero, 3 ordu arte.
- Hamabostaldi edo hilabete osoko ikastaroak.

Pasa zaituz...  
GALARDI KALEA, 100 A  
Eto, denu...



KARRIKAKO JAIAK



Spice Girls taldearen 'Wannabe' kantuarekin lehen saria jaso zuten.



Play-back txapelketan, haurren mailan, bigarren saria eskuratu zuen taldea.



Sagardo dastaketa egin zuten larunbat eguerdian.



Kritika sozial eta politikoa egin zuten Ana Gaspar eta Alba Moreno auzotarrek.



Play back-ean "Subeme la radio" kantua eskaini zuen bikotea.



Jaien hasieran Fernando Uribesalgo auzokidea gogoan izan zuten. Senideek oroigarria jaso zuten.



Ostiral arratsaldean hasi ziren jaiak, Zumalokura saioarekin.



Paella eta patata tortilla lehiaketa egin zuten igande eguerdian. Ostiral arratsaldean, berriz, txokolate jatea.







## KIROL ALBISTEAK

### Gaztetxeko txapelketa



Lontxo-Jauregi gailendu ziren Gaztetxeko Eskuz Binakako txapelketan, Amonda-Loidi 22-17 irabaziz.



Goiburuko pilotalekuan giro ederra sortu zen. Finalistek "paseilloa" eta guzti egin zuten.



### 3X3 Saski txapelketa



Ostiral honetan txapelketaren finalak jokatuko dira Gaztetxearen kanpoaldean.



Talde ugariaren parte hartzearekin jokatuko da 3x3 Street txapelketa.



### ESPERIENTZIA ZIRRARAGARRIA DONOSTI CUP TXAPELKETA



URNIETA K.E. B-11 mailako neska-mutilen taldea txukun aritu da uztailaren hasieran jokatutako Donosti Cup nazioarteko futbol txapelketan. 10-11 urte bitarteko 16 jokalarik osatu dute taldea eta entrenatzaile lanetan Ander Loinaz izan dute. Estreinakoz jokatutako txapelketa garrantzitsu honetan ilusioz eta gogotsu aritu dira Euskal Herriko (Azpeitia, Martutene...) zein gure mugetatik kanpoko tal-

deen aurka lehiatuz (Frantzia, Guadalajara...).

Emaitzak nahi bezain onak izan ez arren, esperientzia polita eta aberatsa jaso dute bertatik. Inaugurazio ekitaldi hunkigarrian ere parte hartu zuten, mundu osoko taldeekin bat eginez. Dagoeneko, indar eta ilusio gehiagorekin datoren urtekoari begira daude, noiz iritsiko zain, berriro ere parte hartzeko irrikitan.





## KIROL ALBISTEAK

# Begiz jota ditu Ordiziako Klasika eta Burgosko itzulia

Eta gertuko proba garrantzitsuak bezalaxe, baita 2018a ere. Euskadi Murias taldea mailaz igoko baita, eta Mikel Iturria urnietarrak Euskal Herriko Itzulia, Kataluniako Volta edota Espainiako Vuelta

korritzeko itxaropentsu dago. Denboraldiaren lehen zatian lesio batek lehiatik kanpo utzi bazuen ere, hurrengo bi asteetan aukera berriak irekiko zaizkio.

### Azken bi hilabeteetan gauza asko pasa zaizkizu. Egiguzu laburpentxo bat...

Denboraldiko lehen sasoi puntu ona lortzear, erori egin nintzen Madrilgo Itzulian. Maiatzaren 6a zen. Erradio burua hautsi nuen. Hamaika egun egon nintzen beso-euskarriarekin. Beste hiru egun zain egon fraktura sendotzeko, eta berehala entrenatzen hasi nintzen. Portugalen proba batean ondo aritu nintzen, Beñat Txoperena taldekideari laguntzen. Gero Route du Sud korritu nuen, itxaropentsu. Aurrean ibili nintzen lehen etapan, ihesean Movistar-eko Richard Carapazekin, baina atzean utzi ninduen, ziur aski beroagatik, eta nekatu samar joan nintzelako, gehitxo entrenatuta. Gero, Espainiako txapelketan, ihesaldian ibili nintzen egun osoan, eta 15. postuan sailkatu nintzen.

### Eta orain zer?

Ordizia, Burgos eta Limousin. Ondo nago. Navacerradan egon naiz, altueran entrenamendu onak egiten. Zenbakiak esan didate iazkoak hobetu ditudala, sentsazioak ere onak izan dira, eta orain zenbaki horiek lasterketan erakusteko unea da.

### Ze emaitza lortu nahi zenuke Ordizian eta Burgosen?

Egun onak eduki behar... Altueran ibili eta gero, gorputzak halako bajoi bat edukitzen du, presio aldatagatik, edo nekeagatik, eta egun hauetan pasa dut. Hurrengo egunetan berriro gorputza zigortu, eta lehiatu. Iaz, Ordizian ihesaldian ibili nintzen egun osoan, eta gero 20 aurrenekotan sartu nintzen. Garbi daukat Pro-Tour mailako jendearekin ibiltzea ia ezinezkoa dela: Simon Yates eta Movistar taldekoak. Horien atzetik iristen den taldean egon nahi nuke, Top 10a egin. Eta Burgosen antzera. Aurten ez dago taldekako erlojupekorik, eta horrek mesede egiten digu. Sailkapen nagusian lehen hamarretan sartu nahi nuke. Iaz 16. izan nintzen, Route du Sud-en 11. nagusian. Nabaritzen da 11. edo 16. izan, edo lehen hamarren artean sartu. Jendeak arreata gehiago ematen dio, 10 onenen artean sartuz gero proba erabakitzen denean onenen mul-



"Picon Blanco, Neila, Burgosko Gaztelua..., etapa gaizto asko daude Burgosen". Argazkia astelehen goizekoa da, Burgos aldean, Pícon Blanco gailurrera igotzen. Argazkia Andoni Urbistondorena da.

tzoan zaudela esan nahi duelako. Ikusiko dugu ze parte hartze dagoen Burgosen.

### Etapa garaipen bat ezinezkoa da ia...

Bai, tarte handia dago gure maila eta Pro-Tour artean. Ez gaude ohituta haien mailara, eta buruz buru aritzean jauzia itzela da. Txanponaren bestaldean, nahiko zorte txarra edukita, erorketekin-eta, ba ez gaudela hain-hain urrun ere. Gero eta gertuago ikusten dut nire burua, eta zortetxo puntu batekin...

### Zer egin duzu Navacerradan?

Entrenatu eta atsedena hartu! Altueran presio gutxiago du aireak, eta gorputza behartuz, ba globulo gorriak indartu eta horien kopurua hazten da. Aristi eta Bizkarra taldekideekin egin ditut bi aste. Badago 18 kilometroko goi ordoki bat, 1.800 metrora, eta han ibiltzen gara bueltaka. Gero mendateetan-eta serie batzuk egin, saio espezifikokoak...

### Luze egiten dira bi aste etxetik urrun...

Beno, hotela ona da, Tourrak ere dezente arintzen du egonaldia... Egin beharreko zerbait bezala ikusten dugu.

### Kontentu etorri zara Navacerradatik. Zergatik?

Entrenamenduak onak izan direlako eta lortutako zenbakiak iazkoak baino hobekak izan direlako. Horrek norberaren buruko indarra ere hobetzen du, konfiantza ematen dizu. Entrenatzen oso metodikoa naiz, datu guztiak gordez ditut, eta horiek, urtez urte, hobekak direla ikusten baduzu, gauzak ondo egiten dituzun seinale, edo errendimenduan hobetzen ari zaren seinale. Zenbakiak egia gordina esaten dute, onean edo txarrean, eta orain gauza onak esan dizkirate.

**Datorren denboraldian taldeak koska bat igoko du: Kontinental-Profesional mailan ariko da. Berri bikaina zuentzat.**

Bai, zalantzarik ez. Niretzat ezustekoa izan da.

### Urnietako jendeak galdetzen du, ea taldean egongo zaren...

Espero dut... Egia da sinatu arte ezin dela ezer ziurrik esan, baina ari gara pausotxoak ematen. Hitz egin dut Odriozolarekin, egin beharreko tramite batzuk ere egin ditugu, eta hurrengo urtean taldean egotea espero dut.

### Zer suposatzen du jauzi horrek?

Amets bat gauzatzeko aukera. Euskal Herriko Itzulia, Donostiako Klasikoa edo Espainiako Vuelta korritzeko aukera izatea gauza handia da. Pro-Tour mailako probak dira, munduko onenekin lehiatzea... Taldeko zortzi txirrindularik korritu behar dute, ez dakit horien artean egongo naizen, baina korrituz gero, dena aldatzen da: foko mediatikoa, erakusleihoa... Orain ere hainbat proba korritzen dugu, baina oihartzuna ez da hain handia.

### Exijentzia ere handiagoa izango da. Arduratzen al zaitu?

Ez, nik ahal dudan guztia egiten dudalako nire onena emateko. Jakina, sufrimendua handiagoa izango da, baina gustuko sufrimendua izango da.

### Soldata ere hobea izango da, ezta?

Bai, noski... koadrillako lagunek irabazten duten hileko soldataren antzekoa, edo. Pro Tour lasterketak korritu ahal izatea soldatak baino gehiago motibatzen nau. Soldata, azken finean, leku batetik edo bestetik lortuko nuke.

### 25 urte dituzu, sentitzen duzu zuretzat zirt edo zart egin beharreko unea dela?

Ez. Hobetzen joatea da hemen gakoa. Urtero jauzi txikiak ematen joan naiz, eta 2018an beste jauzitxo bat eman behar da, egutegi on hori baliatu benetan txirrindulari profesionala izan naitekeen edo ez erakusteko.

### Zerbait gehiago esan nahi al duzu?

Jendea Ordizira edo Burgosera joan dadila, ni animatzera.



Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

**Aiurri**  
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Manuel Larremendi  
Baltzu Mugatua

INISTORRI

TOKIKOM

Ekoizlea:

ERROITZ  
BALTZU MUGATUA

Laguntzaileak:

Eusko Jaurlaritzaren

Gipuzkoako Foru Aldundia

Aldizkari honek  
bi udalerrri hauen  
dirulaguntza jasotzen du:

ANDOAINGO UDALA

Uztaitako  
udala

Argitaratzailea:

ERROITZ  
BALTZU MUGATUA

**Aiurri eskuragarri:**

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 36 eurokoa da. Urnietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

**Egoitza Orokorra:**

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain  
Tel.: 943 300 732  
Faxa: 943 300 731  
@: andoain@aiurri.eus  
**Webgunea:** www.aiurri.eus

**Zuzendaria:**

Jon Ander Ubeda.  
andoain@aiurri.eus  
**Erredaktoreak:**  
Xabier Lasa, Joxeba Lizeaga, Izarne Olano eta Jon Unanue.

**Diseinua:**

Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda.  
diseinua@aiurri.eus  
**Publizitatea:**  
Fernanda Irazu.  
publizitatea@aiurri.eus

**Zorion agurrak, merkatu txikia:**

diseinua@aiurri.eus  
www.aiurri.eus  
**Lege Gordailua:** SS-1078/04.  
**ISSN:** 1698-4870.  
**Tirada:** 6.000 ale.

**Kudeatzailea, banaketa arduraduna:**

Garbiñe Ugartemendia.  
idazkaritza@aiurri.eus  
Tel.: 943 300 732

**Banatzaileak:**

Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urnietan).  
**Inprimategia:**  
Zeroa Multimedia. Huarte-Iruñea.

## ZORION AGURRAK

ZORIONAK



**Izaskun**, bi urte beteko dituzu uztailaren 22an. Zorionak! Ondo pasa eguna familia guztia-rekin.

URNIETA

ZORIONAK



**Aner** Lopetegi Zatarainek 9 urte beteko ditu abuztuaren 10ean. Unax anaia, Oinatz lehengusua eta etxeko en partetik.

ANDOAIN-AIA


ZORIONAK



Uztailaren 31n 4 urte beteko ditu **Ane** Lopezek. Zorionak poxpolin!! Kamioi-kada bat muxu jaso ezazu guztion partez!

ANDOAIN


ZORIONAK



**Joakina** Irizarrek urteak bete zituen uztailaren 20an, eta **Jokin** Belamendia bilobak uztailaren 16an. Etxekoak.

ANDOAIN

ZORIONAK



Datorren abuztuaren 2an **Onintzak** bere lehen urtea beteko du. Zorionak potoloti, etxeko en partetik.

ANDOAIN

ZORIONAK



**Endikak** bere lehenengo urte-betetzea ospatuko du uztailaren 21ean. Muxu piloa etxeko en partetik!!

ANDOAIN

ZORIONAK



Gure etxeko gizontxoak 12 urte beteko ditu uztailaren 29an. Zorionak **Marke!!!** Muxu potolo-potoloak!!!

ANDOAIN

ZORIONAK



Gure hurrengo eskopeterak 6 urte bete zituen joan zen uztailaren 20an. Zorionak **Ane** lagun en partetik!

ANDOAIN

ZORIONAK



**Inge** Igarrizek 10 urte beteko ditu datorren abuztuaren 5ean. Zorionak maitia eta muxu handiak etxeko en partetik!

ANDOAIN

ZORIONAK



Gure **Leirek** 11 urte beteko ditu datorren abuztuaren 7an. Mila muxu, maitia, etxeko en partetik.

ANDOAIN

ZORIONAK



**Aiarak** 6 urte beteko ditu San Inazio bezperan. Muxu goxo bat etxeko en partetik, maitea!!! Aitaxo, amatxo eta Aimar.

ANDOAIN

## ZORION AGURRAK AIURRIN

OSO ERRAZA eta doakoa | diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus | Whatsapp: 619 163 537

## AIURRI ASTEKARIAREN OHARRA

UDAKO OPORRALDIA | Datorren Aiurri astekaria irailaren 5etik aurrera. Uda on, irakurle!

# Zatoz programatzen ikastera!

**Urnietan**  
Uztailak 28  
Pintore kalea



## ikasgela ibiltaria

8-16 urteko gaztetxoentzat programatzen ikasteko tailerrak doan: bideo-jokoak, webguneak, scratch...

10.00etatik 14.00ak arte | 16.00etatik 20.00ak arte

**Hautatu egin nahi duzun tailerra eta hurbildu ikasgela ibiltarira 10 minutu lehenago!**

**KULTURA DIGITAL@**



# Agenda

## UZTAILAREN 20TIK AURRERA

### Leitzarari

#### Andoain

■ **Leitzarari Bisitarien Etxeak** hilabete honetarako antolatuta dituen jarduerak:

#### Uztailak 25, asteartea:

Tren berdea, bailarako historia ezagutuz. Ekitaldi osagarriak: Haur tailerrak, interpretazio gunea zabalik... Goikoplaza-Otieta.

10:00, 11:00, 12:00, 13:00.  
0-3 urte dohainik.

4-15 urte 3 euro.

16tik urtetik gora 5 euro.

■ **Uztailak 30, igandea:**  
Otieta. Bizikleta ibilaldia. Han bertan bizikletak alokatzeko aukera dago.

11:00-13:30. 9 euro.

### Jaiak

#### Andoain

■ **Etxeberrieta, Goiburu** eta **Buruntza** auzoak jaietan murgilduko dira udan. Egitarauak hamaboskarian eta Aiurri.eus gunean.

#### Etxeberrieta:

Uztailak 28-31.

#### Goiburu, San Esteban:

Uztailak 31, abuztuak 2-6.

#### Buruntza:

Abuztuak 12, 15, 16.

### Ikastaroak

#### Urnietan

#### ■ Ikasgela ibiltaria:

Bideo-jokoak, webguneak...

8-16 urtekoentzat.

Pintore kalea.

10:00-14:00 / 16:00-20:00.

Uztailak 28, ostirala.

### Ordutegia

#### Andoain

■ **Andoaingo Udala**, udako ordutegia:

Asteazken: 08:00-14:00.

Irailaren 29ra arte.

■ **Allurralde kiroldegia** eta igerilekuaren udako ordutegia:

Asteazken: 07:00-21:00.

Larunbata: 09:00-20:00.

Oharra: Abuztuaren 1etik 15era kirol instalazioak itxita egongo dira.

#### Urnietan

#### ■ Bake epaitegia:

Ordutegia: 09:00-14:00.

Asteartea, osteguna.

Errekalde kalea, 1.

#### ■ Liburuak igerilekuan:

Haur eta helduentzat liburuak eskura, uda osoan.